

# LIBURUXKA DIDAKTIKOA

SARA



# ikusi Mikusi

10:00

19:00

20  
URRIAK  
21

HAUR  
ETA GAZTE 3.  
LITERATURA AZOKA

2023

bixoko



MARI GORRI



zBby

Galzagorri  
elkarreka



PAMIELA

argitokia



SARA

HERRIKO ETXEA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



EURORÉGION  
EUROESKUALDEA  
EURORÉGION



Nouvelle-  
Aquitaine



MINISTÈRE  
DE LA CULTURE



DONUETE

SARAKOBILTZARRA



Communauté  
PAYS BASQUE

EUSKAL  
ELKARGOA

Nafarroako  
Gobernua

Gobierno  
de Navarra



eke-icb

URRIAREN 20a ESKOLEN EGUNA

# AURKIBIDEA

## 1/ Aurkezpen Orokorra

a/ Zer da IkUsl mlkUsl	3
b/ Zendako IkUsl mlkUsl	3
d/ Helburuak	3
e/ Partaideak	4
f/ Asmoak eta gogoak	5

## 2/ Euskal Haur eta Gazte Literatura

a/ Historia Frantzian	6
b/ Historia Euskal Herrian	7
d/ Gaurko egoera	8
e/ Europako Haur eta Gazte Literatura Azokak	8

## 3/ Ikusi Mikusi 2023

a/ Antolaketa orokorra	9
b/ Eskolen eguna	10
d/ Familien eguna	13

## 4/ Elementu Praktikoak

a/ Egutegia	14
b/ Eskolen bete beharrak	14
d/ Izen emate taula	15



## 1 AURKEZPEN OROKORRA

### a/ Zer da Ikusi mikusi ?

IkUsI mlkUsI proiektua, euskara hutsean den HAUR eta GAZTE LITERATURA AZOKA da. Lehen edizioa 2021-ean izan zen, 2023-ko urriaren 20 eta 21-ean hirugarren edizioa izango da.

Usaian bezala, SARA herrian ospatuko da ekitaldia.

Azkenean, IKUSI MIKUSI euskarari eta haur eta gazte literaturari premiazko tokia eskaintzen dio, Sara herrian, bi egunez : eskolen eta profesionalen eguna eta familien eguna.

### b/ Zendako Ikusi mikusi ?

Euskal Haur eta Gazte Literaturari lehiu berri bat zabaldu nahi dio IkUsI mlkUsIk. Gertaera hunek, gizartean dagoen eskas eta behar bat betetzen du.

Euskal Herri Osoko ikasleak (eskola egunean), eta jendartea (famili egunean), elkartu nahi ditu, Euskaraz den Haur eta Gazte Literaturaren inguruan : iparraldea, hegoaldea eta Nafarroa.

Ekitaldi hau guztiz aurre-ikusia, gogoetatua eta diseinatuta da haurrentzat, bai programatutako ikuskizun eta tailerren aldetik (adinen arabera), baita ere altzari eta espazioen antolaketa aldetik.

Forma ibiltariak alderdi guztietan betetzen du jaialdiaren kontzeptua, eskola eta familientzat pentsatuta baita.

Haur eta gazte euskal literatura profesional guztiak, Euskal Herri osotik (Iparralde, Nafarro eta Hegoaldetik) presente izango dira: liburuen argitaletxeak (bakarrik euskarazko liburuak), idazleak, ilustratzaileak, liburu-saltzaileak, liburuzainak, kondalariak eta artistak.

### d/ Ikusi mikusiren helburuak :

\* Euskal haur eta gazte literatura (gaur egungo euskal kulturaren ardatz nagusietakoa) plazara jalgitzea eta sustatzea.

\* Euskal herri osoko (iparralde, hegoalde eta Nafarroa) ikasleak (eskolen egunean), eta jendartea (familien egunean) elkartzea eta gurutzatzea, literaturaren inguruan.

\* Ume ttikiak, haurrak eta gazteak, irakurtzeko, kondairak entzuteko, hitzekin jolasteko eta idazteko aukerak ematea, euskarazko albuma eta liburuen munduan murgilduz.

\* Familian, gurasoak beren seme-alabekin, euskal liburuen inguruan une goxo bat igarotzea, emozioak elkarrekin bizi daitezen, albumek eskaintzen duten irakurketa eta idazketa jolasei esker.

\* Euskal herri lurralde osotik, haur eta gazte literatura arlo profesionala garatzea.





## e/ Partaideak :

Hiru euskal bazkideek: GALTZAGORRI ELKARTEA, PAMIELA eta MARI GORRI, haurrentzako literaturan espezializatuak, ahaleginak eta ezagutzak kontzentratzen dituzte, EUSKARAZKO HAUR eta GAZTE LITERATURA ekitaldi hau, nagusia eta epe luzerako gertaera paregabea izan dadin.



GALTZAGORRI, Donostian kokatua den 32 urte dituen elkarte da, hegoaldean, euskal haur eta gazte literaturaren erreferentzia bilakatu dena. Haur literatura sustatzen, zabaltzen eta garatzen du, gizarte zibilaren arlo guztiak sentsibilizatuz : egileak, idazleak, ilustratzaileak, profesionalak, familiak, eskola munduan haurrak eta irakasleak.



PAMIELA argitaletxea, Nafarroan kokatzen da, eta euskarazko lehen albumen edizioan aitzindaria izan da. Gaur egun, munduko klasiko ezinbesteko lanak euskaratu ditu. Literatura hau bultzatzen jarraitzen du, urtero, Etxepare saria irabazi duen liburua argitaratuz.



MARI GORRI Saran kokatua den elkarte da, eta bere helburu nagusia da euskarazko haur eta gazte literatura garatzea, Ikusi Mikusi antolatuz. Bere ko-lehendakariak Yolanda ARRIETA eta Pello AÑORGA euskal idazle famatuak dira, eta bere zuzendari nagusia, Amaia Hennebutte.

Bazkide eta laguntzaile askok sustengatzen dute gertaera nagusi hau, besteak beste, Sarako Herriak, Akitania Euskadi Nafarroa EuroLurraldeak, Euskal Hirigune Elkargoak, Euskal Kultur Erakundeak, Departamenduak, DRAC-ek baita ere LYRA fundazioak eta VVF egiturak.



SARAKOBILTZARRA

## f/ Gogoak eta asmoak :

Eskola egunean, maila guztietako ikasleak, Euskal Herri lurralde guztietatik biltzen eta elkartzen dira Saran.

**Ikusi Mikusira heldu den ikasle bakoitzak BONO bat jasoko du, eta hunekin, gustukoa duen liburua erosten ahalko du !**

Erabat haiei dedikatutako eguna elkarrekin igaroko dute, eta hainbat ekitalditan parte har dezakete :

- euren eta besteen sorkuntzen erakusketa bisita dezakete,
- euskal liburuak ezagutzen eta erosten ahalko dituzte,
- euskal idazle eta ilustratzaileak topatuko dituzte,
- ikuskizunak ikusiko eta biziko dituzte,
- tailerretan parte hartuko dute, eta sortzaile bilakatuko dira.





## 2 EUSKAL HAUR ETA GAZTE LITERATURA



### a/ Historia Frantzian

Frantzia herrian, betidanik HAUR LITERATURAK toki handia izan du gizartean.

18. mendean hasi zen haur literatura.

Garaian, haurrei zuzendutako literatura moralista eta pedagogo da: ixtorio guztiak biziki moralak ziren, eta liburuetan agertzen ziren pertsonaiak, haurrendako, irakurlearendako, modeloak izan behar ziren!

19. mende erdian, liburuetan, agertu dira lehen haur pertsonaiak konplexuagoak, eta trabagarriak: Jean-Paul Choppart, izan zen lehenena: Louis Desnoyers-ek asmatu, (lehen gazte elaberria) 1836-an. (hegoaldean ez da ezagutzen, gaztelaniaren eraginez, Lazarillo de Tormes eleberria zabaldua dugu, 1550. urtekoa)

Anti-heroea zen benetan: fisikoki itsusia, gainera mila zozokeri egiten...

Gero Pinocchio, Tom Sawyer... eta beste, inspiratu dituenak.

Bi mundu gerren artean, haur pertsonaiak autonomia eta libreagoak

agertzen hasten dira : ezagunena Fifi Brindacier, Pipi Kaltzaluze bezala itzuli da hego Euskal Herrian, neska suediarra, eskandaloa eta debekatua izan zena luzaz. Gezurrari, irudimenari eta sorkuntzari ate bat zabaldu zen orduan! Haur zintzo eta haur gaiztoaren dikotomia amaitu zen.

60. hamarkaden bukaera, eta sustut 68. urteetan, zinez aldaketa sendi da : haurra BILUZIK agertzen da ! (Sendak album ilustratuaren aitatzat hartzen dena In the Night Kitchen liburuan 1970. urtean kaleratua lehen aldiz haur bat biluzik agertzen da)

Gai berri batzu jorrazten dira = burasoen bereixketa, heriotza, haurren trauma eta beldurrak... Lehen haurra « babestu » nahian aipatzen ez zirenak, orain haur literaturan sartzen dira!

Azkenean, gaur egun, erran deza-kegu, haur literaturak gizartearen bilakaera jarraitzen duela!





## b/ Historia Euskal Herrian

Euskal-herria aipatzerakoan, iparalde eta hegoaldeak bereixi behar dira.

Erran gabe doa, Iparraldean, Frantzia kulturaren eragina izanki, haur literatura kulturen sartua dela: burasoek albumak erosten dituzte, arratsetan haurrei ipuinak irakurtzen dizkiete, eskoletan, albuma oinarrizko lan tresna ezinbestekoa bilakatu da...

Hegoaldean, ez da egoera berdina, eta haur literatura, ez da oraino gizarte kulturen barneratua, ere ezta erakaskuntzan....

Haur Literatura, Euskara Hizkuntza-ren egoerari lotua izan da. Erran bezala, Frantzia, 1960. urteetan, garatuz joan da haur literatura, eta sekulako aberastasuna eta aniztasuna izan da geroztik.

Hego Euskal herrian, 80.hamarkadan hasi zen haur literatura garatzen euskararen normalizazioarekin batera ...

Ondorioz, euskal haur eta gazte literaturan "beranta" handia zegoen.

2000. urteetan, 5 urte goitiko haurrentzat, euskarazko liburu eskaintzak badu zer erakutsi. Aldiz 0-5 urte artekoentzat, sorkuntza propiorik, deus ez zegoen ! Geroztik, emeki-emeki garatuz doa, argitaletxe batzuei esker.

Gaur egun, bagoaz munduko obra kanonikoak euskaratzen eta sekulako garapena ezagutzen du Euskal Haur eta Gazte Literaturak, sorkuntza arloan idazle eta ilustratzaile berri eta gazteei esker.

## d/ Gaurko egoera

Edalontzia betetzen ari den seinale, egun, sorkuntza aberatsa eta zabala dago euskal sortzaile ugarien artean, batez ere ilustratzaile ofizioari erreparatuta. Hor dugu, adibidez, Miren Asiain, Iban Barrenetxea, Maite Gurrutxaga, Eider Eibar, Maite Mutuberria, Elena Odriozola, Leire Salaberria... Komikia mundua ari da mugitzen eta egile eta irakurle ugari erakartzen: Harkaitz Cano, Eider Rodriguez, Asisko Urmeneta, Julen Ribas, Dani Fano... Idazle gazte ugari ari da plazaratzen: Leire Bilbao, Oihane Fernandez, Ana Jaka, Ramon Olasagasti, Ruben Ruiz, Castillo Suarez...

## e/ Europako Haur eta Gazte Literatura Azokak



### Salon du Livre et de la Presse Jeunesse Montreuil :

Haur eta gazte literatura azoka garrantzitsuena, Frantzia geratzen da, Montreuil hirian, urte guziz, azaro amaieran.

Aste oso batez, publikoa eta munduko profesionalak biltzen dira, eta sorkuntza berriak plazaratzen dira, ikuskizunak eta tailerrak antolatuak dira, idazle eta ilustratzaileak argitan emanak dira....

Eskolen eguna, familien eguna, baita ere profesionalen antolatuak dira.

Literatura sorkuntza eta berrikuntza guztiak agerian jarriak dira.

Munduan zehar, ezinbesteko hitzordua bilakatu da.



### Bologna Children's Book Fair :

Bigarren hitzordu garrantzitsuena da apirila hastapenean Bolognan antolatzen den azoka, urte guziz. Baina azoka honetan, gehiago argitaletxe eta marrazkilarien arteko topaketa profesionalak dira antolatuak. Ez da irekia publiko zabalari (eta sustut haurrei).

### Bienále Ilustrácií Bratislava BIB :

Ilustrazioen nazioarteko azoka da, 1966. urtetik bi urtetik behin ospatzen da Eslovakian. Haur eta gazteen liburu- eta marrazkiak erakusten dira. Andersen sariarekin batera ospetsuenetakoa da. Euskal irudigile batzuek bertan Urrezko Sagarra Saria jaso



### Buchmesse Frankfurt :

Urriantolatzen den azoka mundiala honetan, gehiago profesionali zuzendua da, argitaletxeen arteko egile eskubideen baimenen salmenten egiteko tokia bilakatu da.



dute, adibidez Asun Balzolak 1985. urtean eta Elena Odriozolak 2015. urtean.



# ikusi Mikusi

## 3 IKUSI MIKUSI 2023

### a/ Antolaketa orokorra

Bi egun ezberdin :

-ESKOLEN eta PROFESIOALEN EGUNA  
Urriaren 20a.

-FAMILIEN EGUNA Urriaren 21a.

- **Tokia** : Sara herrian, Lapurdin kokatua, muga  
ondo-ondoan.

- **Forma ibiltaria** : sala ezberdinak, aterpeak,  
gune goxoak, ostatuak...

**Haur eta Gazte Literatura mundua :**

- euskal argitaletxeak
- (bakarrik euskara hutsean diren liburuak),
- idazleak,
- ilustratzaileak,
- tailerrak,
- topaketak,
- mintzaldiak,
- ikuskizunak,
- liburuaz gozatzeko guneak.... haur eta gazteei  
dedikatuak, egokituak eta aurre-pentsatuak.


**Dena DOHAINIK salbu ikuskizunak : 5€.**

**Bono bat eskainia, ikasle bakoitzari.**

**Izen emateak (ikuskitun eta tailerraten)  
beharrezkoak dira.**



# SARA



PLEKA TRINKETEA

4

3

VVF TIKIAK

2

VVF HANDIA

5

TTIPITTOEN  
KOKOA

1

LURBERRI



# ikusisi Mikusi



6

PLAZA

7

SUHARRIAGA

8

LIBURUTEGIA

9

LARRUN  
GELA

10

OLHAIN GELA

KIROLDEGIA

## b/ Eskolen eguna : Urriaren 20a, Ostirala

Eskolak, IKUSI-MIKUSI azokara etorri aitzin, aurretik proiektuan sartu eta inplikatu behar dira :  
**ikasgela bakoitzak idatz lan EDO/TA grafiko bat sortzen du.**

Aurtengo IKUSI MIKUSI gaia :  
**Zure mugaz gaindiko mundua(k)**

**Ikasgela bakoitzak idatz lan EDO/ETA grafiko bat sortzen du.**

Ikasgela bakoitzak, gaiari lotuta, sortuko du :  
- edo idatz lan bat (olerki, ipuin, komiki...)  
- edo lan grafiko bat (afitxa, ilustrazio, tinta...)  
- edo idatz lan grafiko bat (testua eta ilustrazioa, album ilustratu bat, olerki ilustratuak...)

**Neurriak : gehien bat A3 neurrikoa.**

Lan guztiak SARA KO HERRIKO ETXERA helarazi beharko dira, epe-muga, **irailaren 30a delakoan**. ERAKUSKETA gunean agerian erakutsiak izanen dira lan guztiak, publikoari zabaldua. Hurrek beren ekoizpena aurkitzen eta ikusten ahalko dute, azokara etortzerakoan. Azoka amaituta, gogoia izanen duten eskolek, beren lana berreskuratzen ahalko dute, Sarako Herriko Etxean.

**IKASLE BAKOITZAK BONO BAT  
JASOKO DU, NAHI DUEN  
LIBURUA EROSTEKO BERTAN !**

# ERAKUSKETA

« IKASLEEN OBRAK »

Eskola guzietan egindako lana aurtengo gaiari buruz, egun osoan.

7

SUHAGARRIA

8

LIBURUTEGIA



# IKUSKIZUNAK

TXIKIENTZAT (+3 urte) :

## « NOMADAK »

Teatro Paraiso aurkezturik.

50 minuta.

Antzerkia eta dantza.

10:30 / 13:00

«Gutun misteriotsu bat heldu da gelara, eta haurren jakin-mina piztu da. Gutun-azal handi batean dago, eta lurraren eta paperaren usaina du. Itxita dago, eta bi emakume ezezagunek bidali dute: Sakak eta Tamánek. Baina, zer sorpresa du barruan?»

2

VVF HAUNDIA

HAUR ETA GAZTEENTZAT (+5 urte) :

## « GORRI »

Mireia Miracle aurkezturik.

50 minuta.

Pailaso poetikoa.

10:30 / 13:00

«Pailazo bat maleta batetik ateratzen da, publikoa bere familia egiten du eta ilusioz eta zabor askoz beterik agur esaten die.

Baina bere bidaia traba batek geldiko du : Muga bat.»

6

SARAKO PLAZA



# TOPAKETAK

GAZTEENTZAT (+11 urte) :

## IDAZLE-ILUSTRATZAILEEN TOPAKETAK

« Zuzenean | Telebista aurrean ! »

Gazteek ikasgelan aurretik idazle- ilustratzaile bati buruz ikerketak eramango dituzte, eta galdeketa oso bat prestatuko dute.

Ikusi Mikusin, aukera izango dute egile hau benetan galdezkatzeko, telebista emankizun baten moduan, Kanaldudek zuzenean filmatu eta hedaturik.

- 10:30, Maite GURRUTXAGA, ilustratzailea.
- 11:30, Asisko URMENETA, komiki-ilustratzailea.
- 12:30, Mariasun LANDA, idazlea.
- 13:30, Pello AÑORGA, idazlea.

1

LURBERRI

**KASU !** Galdeketa ikasgela taldean prestatzen bada, egunean bertan galdeketa eramateko, **BAKARRIK 4** ikasle agertuko dira telebista platoan.

## 3 - 5 URTEKOENTZAT

### « EZBERDIN BEZAIN EDER »

**5 KEINU**

Nerea Ariznabarreta eta Mariano Hurtadok proposatua.

**50 minuta - 10:30 / 13:00 / 14:30**

**Antzerkia eta musika.**

Ezberdina izatea. Horixe da zuzeneko musikaz lagundurik kontaketa honetan darabilgun gaia. Txirula izan nahi duen kontrabaxua edo otsoa jan nahi duen txerriarekin aurkituko gara.

Umoreaz baliatuz, anitz eta ezberdina dena kuriositatez begiratu, ezagutu eta hurbilduko ditugu.



### « KONTU KANTARI »

**3 VVF TIKIAK**

Ines Bengoak proposatua.

**45 minuta - 10:30 / 13:00 / 14:30**

**Antzerkia eta musika.**

Txikienek ipuinez gozaten dute zentzu guztiekin, horregatik kontatu, kantatu eta hitzen bidez jolasten gara haiekin. Hitzez, soinuz eta abestiz osatutako ipuin saioa da hau, gurasoez edo maisuez lagundutako haurrentzako.



### « IPUIN JOKOAK »

**3 VVF TIKIAK**

LibrePlume elkarteak proposatua.

**45 minuta - 10:30 / 13:00 / 14:30**

**Ipuin kondaketa**

«Karakoil ttikiak bizkarrean daramatza... ipuinak eta kantu jolasak!». Bota dadoa karakoilaren oskolaren itzulia egiteko! Bertan ipuinak, kantu jolasak baina baita istorioak asmatzeko joko ttikiak ere atzemanen dituzue!





## 6 - 10 URTEKOENTZAT

### « ZURE LIBURUA SORTU »

#### 1 LURBERRI

Daniela Maitiak proposatua.

50 minuta - 10:30 / 13:00 / 14:30

Liburu sorkuntza.

Kolaketa kolorezko papera eta olerki zati batzuk erabiliz, liburu bat sortu !



### « KAMISHIBAI »

#### 9 LARRUN

Mattinek proposatua.

50 minutu - 10:30 / 13:00 / 14:30

Irakurketa eta sorkuntza.

Kamishibai irakurketa eta marrazketa tailerra da. Japonian sortutako irakurtzeko teknika baten bidez ipuin irakurleak, egurrezko antzoki batean irakurri ahala, marrazkiak erakusten ditu.



### « ZURE AMETSA DANTZAN »

#### 10 OLHAIN

Arantxa Lannek proposatua.

50 minuta - 10:30 / 13:00 / 14:30

Dantza.

Mugimendua gai nagusizat hartuz, ikusmolde sensible eta poetiko bat sortu. Mundu guziak dantzaarazteko !



### « GANBARAKO IPUINAK »

#### 4 PLEKA

Bapatean konpainiak proposatua, Odei Arregik eskainia.

50 minuta - 10:30 / 13:00 / 14:30

Ipuin Kondaketa.

Jakina da ganbaran gordeta denbora luzez dauden gauzei ahaztu egiten zaiela behin zertarako izan ziren eta eginkizun berriak hartzen dituztela.



GANBARAKO IPUINAK

## + 11 URTEKOENTZAT


### « IPUIN KONDAKETA »

7

SUHARRIAGA

Joxe Mari Carrerek proposatua.  
50 minuta - 10:30 / 13:00 / 14:30  
Ipuin kondaketak.

« Maitale Jazarriak » eta « Hiru Urak » ipuin antzeztuen kondaketa. Istorio harrigarriak, liluragarriak; errekan nabigatzen duten hostoek nola, hitzak kontakizunaren korrontean abiatuko dira.



### « KARIKATURAK »

7

SUHARRIAGA

Asisko Urmenetak proposatua.  
45 minuta - 10:30 / 13:00 / 14:30  
Marraskia.

Karikatura: bestearen soa gureganatzeko abentura ! Karikaturak ez du deus asmatzen, baina, izan baden hori distortsionatu egiten du. Epaitu gabe, betiere: zeinek dio du sudur luzea [edo xapala, edo zuta, edo kakoa, edo...] itsusia ala polita den? Giro goxoan. Ariketak laguntzen gaitu ikuspegi kritikoa garatzen, umorearen bidez elkar komunikatzen, eta norbere buruaren [gorputzaren!] onarpena lantzen.




### « BOOKTUBE »

7

SUHARRIAGA

Galtzagorrik proposatua.  
50 minutu - 10:30 / 13:00 / 14:30  
Booktuber bat bilakatu !

Liburuak eta sare sozialak harremanetan jarriz, irakurzaletasuna sustatzea helburu duen tailerra.



### « IDAZLE-ILUSTRATZAILEEN GALDEKETA »

1

LURBERRI

4 ikasle ordezkariak proposatua  
10:30, Maite GURRUTXAGA / 11:30, Asisko URMENETA.  
12:30, Mariasun LANDA, idazlea / 13:30, Pello AÑORGA, idazlea.  
Elkarrizketa.

Ikasleek Ikusi Mikusin aukera izango dute idazle- ilustratzaile bat benetan galdezkatzeko, telebista emankizun baten moduan, Kanal-dudek zuzenean filmatu eta hedaturik. Prestakuntza eskoletan egina izan beharko da.



## AURTEN IZEN-EMATE GUZIAK HELLOASSO WEBGUNEAN EGITEN DIRA !

- Izen-ematea apirilaren 17ean irekiko da -

<https://www.helloasso.com/associations/ikusi-mikusi>

\*Kasu ! Tailerrek eta ikuskizunek tokiak mugatuak dituzte !  
Beraz ez duda laster izena ematea !

### Nola egin ?

1/ Begiratu **TXOSTEN DIDAKTIKO HUNTAN** zein ikuskizun eta/  
edo tailerretan parte hartu nahi duzun.

2/ Apirilaren 17ren goiti HelloAsso webgunean hautatutako  
ikuskizun eta/edo tailerran ordua aukeratu eta klikatu.

3/ HelloAsso fitxategia bete.

4/ Ordainketa zuzenki HelloAsso webgunean egin.

Izena-eman aintzin galdera edo duda bat ? Deitu ! (+33) 06 98 12 36 50



# 4 ELEMENTU PRAKTIKOAK

## a/ Egutegia

### Ekainaren 30a :

Eskolen izen-emate epemuga

### Irailaren 30a:

Ikasgelek beren idatz lan grafikoa bidaltzeko epea, Sarako Herriko Etxera

### Urriaren 20a :

Eskolen eta profesionalen eguna

### Urriaren 21a :

Familien eguna



## b/ Eskolen bete beharrak

1/ Izena eman lehen bai lehen.

<https://www.helloasso.com/associations/ikusimikusi>

2/ Autobusa edo garraioa antolatu.

3/ Idatz lan edota grafikoa Sarako uda-letxera helarazi.

IKUSI MIKUSI  
Sarako Herriko etxea,  
BP 16,  
64 310 Sara

Harremana



IKUSI MIKUSI  
[www.ikusimikusi.eus](http://www.ikusimikusi.eus)  
[ikusimikusi@gmail.com](mailto:ikusimikusi@gmail.com)



SARAKO BILTZARRA



MARI GORRI  
[marigorri.elkartea@gmail.com](mailto:marigorri.elkartea@gmail.com)



GALTZAGORRI Elkarte  
[galtzagorri@ibbygaltzagorri.eus](mailto:galtzagorri@ibbygaltzagorri.eus)

